

BESTELAKO XEDAPENAK

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

1218

AGINDUA, 2025eko otsailaren 14koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, 2025ean gazteen mugikortasunerako edo trukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdia egiten eta dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 9.1.i) artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari esleitzen dio plazak trukatea dakarten programak betetzea eta pertsona fisiko eta juridikoei, publiko zein pribatuei, dirulaguntzak ematea, lurralde, erkidego eta herrialdeen arteko gazteen mugikortasuna sustatzeko.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari esleitzen dizkio gazteriaren eta emantzipazioaren arloko egitekoak eta jardun-arloak.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak beste erakunde batzuekin partekatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren eremuan jarduera sustatzeko lana. Horretarako, agindu honen bidez, laguntza eraginkorra emateko bideak ezartzen ditu, pertsona juridiko publiko zein pribatuei, baldin eta beren helburuen artean deialdi honek zehazten dituen eremuetako batean kokatutako jarduera bat garatzea badute.

Gazteen mugikortasuna edo trukea helburu duten jarduerak garatzen laguntzea Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak planteatzen du, gazteak gizartean integratzen lagunduko duen tresna gisa. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek gazteen mugikortasuneko edo trukeko jarduerak gauzatu ahal izango dituzte, erakunde horiek askatasunez egindako diseinua arabera, eta beren ekimen sortzailea mugatu dezaketen muga zorrotzak ezartzea saihestuz.

Azaldutakoaren arabera, dirulaguntzen araubidea eskuratzeko aukera emango dien laguntza-esparru zabala diseinatu da gazteen mugikortasuneko edo trukeko jarduera bat egin nahi duten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko, publiko edo pribatu guztientzat.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Agindu honen I. eranskinean jasotako oinarriak onartzea eta 2025. urtean gazteen mugikortasun edo trukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdia egitea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuari, hilabeteko epean, Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 14a.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

I. ERANSKINA

2025. URTEAN GAZTEEN MUGIKORTASUNERAKO EDO TRUKERAKO JARDUERAK
ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2025ean gazteen mugikortasunerako edo trukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdia egitea eta dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea, ondoren zehazten diren baldintza eta betekizunen arabera.

Bigarrena.– Baliabide ekonomikoak.

Lehenengo oinarrian aipatutako helburua betetzera zuzenduko diren baliabide ekonomikoak aurrekontuetan xede horretarako ezarritako kredituetatik etorriko dira, eta horien guztizko zenbatekoa 145.000 eurokoa izango da.

Hirugarrena.– Onuradunak.

Agindu honetako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten eta bosgarren oinarrian zehazten diren eremuetan sustapen eta zabalkunde jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoek, publiko zein pribatuek.

Laugarrena.– Erakunde onuradun izateko betekizunak.

1.– Entitate eskatzailea dagokion erregistroan legez eraturik eta inskribaturik egon behar da.

2.– Ezingo dute deialdi honetako laguntzarik eskuratu Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean daudenean.

3.– Ezingo zaie laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuaren bereizkeria eragiten duten jarduerari, ezta sexuaren bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio edo zigor zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, zehapenean ezarritako epean.

Era berean, ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun plan bat indarrean eduki behar duten baina halakorik ez duten enpresek, ez eta 50 langiletik gorako enpresek ere, baldin eta ez badute egiaztatzen neurriak ezarri dituztela sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera (1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena).

4.– Erakunde onuradun izateko eta bertan jarraitzeko, dirulaguntza likidatu arte, erakundeak egunean izan beharko ditu indarreko xedapenak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere.

5.– Nolanahi ere, Dirulaguntzen Araubideari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, itzulketa-prozedura hasteko erabakiak automatikoki etengo ditu eragindako dirulaguntzari dagozkion ordaindu gabeko zenbatekoen igorpenak.

6.– Udalei dagokienez, onuradun izateko, bikoiztasunik ezari eta finantza-iraunkortasunari buruzko aldeko txostenak eskuratu beharko dituzte, udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jardueren, zerbitzuen edo prestazioen egikaritzea arautzen duen ekainaren 25eko 93/2019 Dekretuaren arabera.

Mankomunitateen eta toki-erakundeen beste elkarte-formula batzuen kasuan, txosten horiek, lehen adierazi den moduan, horiek osatzen dituzten udal guztiei dagokienez lortu beharko dira.

Bosgarrena.– Dirulaguntzaren xede diren jarduerak.

1.– Honako eremu hauetan egiten diren jarduera zehatzak eta urteko programak lagundu ahal izango dira:

a) Gazte-taldean arteko mugikortasun eta trukerako jarduerak.

b) Gazte-taldean arteko mugikortasun eta trukearekin loturiko lurraldez gaindiko sustapen, zabalkunde edo prestakuntza jarduerak.

2.– Deialdi honen ondorioetarako, gazte-taldean arteko mugikortasun eta trukerako jardueratzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko gazte-taldean artean egiten direnak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Jardueren hartzaileak 12 eta 30 urte bitarteko gazteak izatea.

b) Interes orokorreko gaiak izatea, garrantzitsuak parte hartzaileentzat. Jardueren gai-kontzeptuak argia behar du izan, parte hartzaileek batera lantzeko erakargarria. Gaia adostasunez aukeratu behar da, eta parte hartzaileen interesak eta beharrak bildu behar ditu. Gaia gazte-trukaketaren eguneroko jardueretan islatu behar da.

c) Ikaskuntza ez-formalaren metodoak aplikatzea. Jarduerak gaitasunak eskuratzea edo hobetzea izango dute helburu (ezagutza, trebetasunak eta jarrerak), hartara garapen pertsonala, gizarte-heziketakoa eta profesionala lortzeko, ikaskuntza ez-formal eta informala bitartez. Jardueren abiapuntuan, sormena, parte hartze aktiboa eta ekimena (gogo ekintzailea) sustatuko dituen ikaskuntza-prozesua egongo da. Ikaskuntza-prozesu hori mugikortasun edo trukerako jarduera osoan zehar planifikatu eta aztertu behar da: hausnarketarako espazio bat eskaini behar zaie parte hartzaileei, ikaskuntzarekin loturiko esperientziez eta emaitzez gogoeta egiteko.

d) Parte hartzaileen inplikazio aktiboa proiektuan. Eguneroko jardura-programak eta lan-metodoak ahalik eta inplikaziorik handiena sorrarazi behar dute parte hartzaileen artean, eta ikaskuntza-prozesurako akuilua izan. Parte hartzaileak inplikaturik egongo dira, baita ere, proiektua prestatzeko eta ebaluatzeko faseetan.

e) Parte hartzaileen garapen soziala eta kulturala sustatzea. Jarduerak lagundu egin behar diete parte hartzaileei beren buruan ziurtasuna izaten, horrela esperientzia, jarrera eta jokatze berriei aurre egiteko; eta lagundu behar diete beren garapen soziala edo pertsonala sendotuko duten trebetasunak, gaitasunak eta ezagutza eskuratzen edo lantzen.

f) Kultura-artekotasuna. Mugikortasun eta trukerako jarduerak gazteek beste kultura batzuekiko duten sentiberatasun positiboa areagotu behar dute, eta ingurune eta kultura ezberdinetatik datozen gazteen arteko elkarrizketa eta kultura-arteko elkarguneak bultzatu behar dituzte. Horretaz gainera, laguntza eman behar dute aurreiritziak, arrazismoa eta bazterkeriak prebenitzen eta horiei aurre egiten, eta, aldiz, tolerantzia eta dibertsitatearen ulerbideak zabaltzen.

g) Europartasuna eta nazioartekotasuna. Mugikortasun eta trukerako jarduerak balio behar dute gazteen hezkuntza-prozesua indartzeko eta haiek bizi diren ingurumari europarrarekiko eta nazioartekorekiko kontzientziazioa handitzeko.

h) Iraupena. Trukaketa-jarduera bakoitzaren iraupena (bai joanekoa, bai harrerakoa) 6 eta 21 egun artekoa izango da, egun jarraituak alegia. Horretan ez dira zenbatuko prestakuntza-egunak, trukaketaren helmugarainoko bidaiak, ezta jarduerak ebaluatzeko fasekoak ere.

i) Parte hartzaileen kopurua. Talde bakoitzetik gutxienez 6 partaide egongo dira, eta gehienez 15. Dena den, gehieneko kopurua beti izango da 60koa. Talde bakoitzak, gainera, monitore bat izango du gutxienez; monitore-kopurua, baina, gehienez ere bat lau pertsonako izango da, salbu eta parte hartzailearen baten beharizan espezifikoak direla-eta monitore gehiago behar direla justifikatzen bada.

3.– Deialdi honen ondorioetarako, gazte-taldeen arteko mugikortasun eta trukearekin loturiko sustapen, difusio edo prestakuntza jardueratzat hartuko dira EAEn egiten diren mintegi, prestakuntza-ikastaro edo zabalkunde-kanpainak, baldin eta hartzaileen artean etorkizunean bestelako mugikortasun edo truke proiektuak egiteko xedea badute. Jarduera horiek lurraldez gaindikoak izango dira, hau da, Lurralde Historiko bateko baino gehiagoko hartzaileak izango dituzte jomuga. Hori dela eta, ustekabe hutsez Lurralde Historiko bateko baino gehiagoko parte hartzaileak egoiteak berak ez du esan nahi jarduerak lurraldez gaindikotzat har daitezkeenik.

4.– Eskaera batean berez izaera aldetik ezberdinak diren jarduera bat baino gehiago sartzan badira, banaka-banaka adierazi beharko da zeintzuk diren jarduera bakoitzaren helburuak, hartzaileak eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua. Horretarako, izaera aldetik ezberdintzat joko dira, xede edo hartzaile ezberdinak dituzten jarduerak ez ezik, finantzabide propio eta bereizi bat edo gehiago dituztenak ere.

Seigarrena.– Bazterketak.

Agindu honen aplikazio-esparrutik kanpo gelditzen dira jarduera hauek:

a) Ikasketa akademikoetarako bidaiak.

b) Etekin ekonomikoa bilatzen duten truke-jarduerak.

c) Turismotzat jo daitezkeen truke-jarduerak.

d) Jaialdietan parte hartzea edo bertaratzea.

e) Opor-bidaiak.

f) Hizkuntza-ikastaroak.

g) Ikuskizun-birak.

h) Eskola-trukeak.

i) Kirol-lehiaketak.

j) Erakundeen arauzko bilerak.

k) Bilera politikoak.

l) Auzolandegiak.

m) Autofinantzaketa kostu osoaren % 20 baino txikiagoa denean, hau da, erakunde eskatzai-leak jarduerara bideratuko dituen diru-sarrera propioak jarduera horren aurrekontu osoaren % 20 baino txikiagoa denean. Diru-sarrera propiotzat hartuko da administrazio publikoak partaide ez dituzten entitate pribatuek emandako diru-ekarpenak.

n) Gainfinantzaketa ezabatze aldera eskatutako diru-kopurua zuzentzearen ondorioz kopuru hori erabat desagertzen denean. Gainfinantzaketatzat hartuko da aurreikusitako gastuak gaindizten duen aurreikusitako diru-sarreraren zatia (eskatutako dirulaguntza guztiak barne).

o) Funtsezko ezaugarriak zehaztugabe dituzten jarduerak. Hau da, helburuak, jarduera-programa, non egingo diren, egikaritze-egutegia, hartzailleak edo aurrekontua zehaztugabe dituzten jarduerak.

Zazpigarrena.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta aurrekontua.

1.– Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira: diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak eta deialdi honetan ezarritako epean, emakida ebazpenean edo litezkeen aldaketetan egiten direnak. Diruz lagun daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ez da, inola ere, merkatuko balioaren gaintekoa izan ahal izango.

2.– Gazteen arteko mugikortasun eta trukerako jardueretan, honako gastu hauek baino ez dira diruz lagunduko:

a) Eskaera egiten bada bakarrik gazteak Europar Batasuneko beste eskualde eta estatu batzuetara bidaltzeko, diruz laguntzeko modukotzat joko dira EAEko gazte taldeari dagozkion bidaia-gastuak, jarduerak prestatzeko eta egitekoak, eta proiektua gauzatzen den tokiko ostatu eta mantenu gastuak.

b) Eskaera egiten bada bakarrik Europar Batasuneko beste eskualde eta estatu batzuetako gazteak hartzeko, diruz laguntzeko modukotzat joko dira gazte haienzako jarduerak prestatzeko eta gauzatzeko gastuak, eta ostatu eta mantenu gastuak ere.

c) Eskabide berean EAEko gazte-talde bat kanpora bidaltzeko eta Europar Batasuneko beste eskualde eta estatu batzuetako gazteak hartzeko laguntza eskatzen denean, diruz laguntzeko modukotzat joko dira bai EAEko gazte-taldea bidaltzeko bidaia-gastuak bai Europar Batasuneko beste eskualde eta estatu batzuetako gazteak Euskadin hartzeko gastuak, alegia, haienzako jarduerak prestatzeko eta gauzatzeko gastuak eta ostatu eta mantenu gastuak.

d) Aurreko hiru kasuetan, honako muga hauek hartuko dira kontuan:

d.1.– Bidaia-gastuak direla eta, jatorrizko herrialdetik jarduerak egiten diren tokirainoko joan-etorriko bidaia hartuko da aintzat, eta bitarte eta tarifa merkeenak erabiliko dira.

d.2.– Jarduera prestatzeko eta egiteko gastuei dagokienez, gaueko gehieneko kopurua 125 eurotan ezartzen da gazte parte hartzaile bakoitzeko.

d.3.– Ostatu eta mantenu gastuei dagokienez, pertsonako eta gaueko gehieneko kopuru bat ezartzen da, jarduera egiten den herrialdearen arabera, Agindu honen V. eranskineko taulan xedatutakoaren arabera.

3.– Zergei loturiko diru-zenbatekoak laguntzeko modukotzat joko dira, eskatzaileak berak benetan ordaintzen dituenean eta berreskuratu edo konpentsatu ezin badira.

4.– Ez da laguntzarik emango entitate eskatzailearen zeharkako gastuetarako edo egitura-gastuetarako.

5.– Halaber, ez da laguntzarik emango inbertsio-gastuekin lotutako diru-kopuruak ordaintzeko.

6.– Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatzeko zereginaren % 50 azpikontratatu ahal izango du gehienez.

7.– Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioari dagokionez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 15.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada (BEZik gabe), onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua emateko, hornitzeko edo materiala entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen dituzten behar besteko hornitzaile kopururik ez badago, edo, salbu eta gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada. Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta berariaz justifikatu beharko da memoria batean, proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean. Gainera, eskaintzak justifikazioan aurkeztu beharko dira.

8.– Artikulu honen arabera ez laguntzeko moduko gastutzat jotzen diren horiek agertzen badira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan, edota laguntzeko modukoak izanik ere ezarritako muga gainditzen badute, balorazio batzordeak ezabatu edo araztu egingo ditu gastuok, dirulaguntza kalkulatzeko beharrezkoa den oinarritzko gastu-aurrekontua zehaztu ahal izateko.

Zortzigarrena.– Dirulaguntzen izapidetzea.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko telematikoak erabili beharko dituzte prozedura horren izapide guztiak eskatu, kontsultatu eta egiteko.

2.– Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, izapideak egiteko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak jasotzen dituen, eta eskabide-inprimakian sartzeko aukera ematen duena, helbide honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0102412>

3.– Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

4.– Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera, atxikitako egiaztagiriekin batera. Halaber, eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabiliko da eskabidearen ondoriozko jarduketetan eta prozedura osoan, Euskararen Erabilera Arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

5.– Eskabidea ordezkari baten bidez ere izapidetu ahal izango da elektronikoki; horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikazio eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

7.– Eskabidearen ondorengo izapideak, bide elektronikoz, jakinarazpenak eta justifikazioak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» erabiliz egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

Bederatzigarrena.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidea, hamargarren oinarrian adierazitako erantzukizunpeko adierazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen inprimaki normalizatuan beteko da. Eskabidearen edukia II. eranskinean dago jasota.

2.– Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Proiektuari buruzko memoria zehatza, programa edo jardueraren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko helbide honetan eskuragarri dagoen ereduaren arabera: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0102412>. Memoriaren edukia III. eranskinean dago jasota.

- b) Identifikazio Fiskalaren Zenbakiaren txartelaren fotokopia.
- c) Erakundearen dagokion erregistroan inskripzioari buruzko ziurtagiri eguneratua.
- d) Izaera juridikoaren arabera, dagokion erregistroan inskribatutako azken estatutuen kopia.

Entitate eskatzaileak dokumentu horiek aurretik aurkeztu baditu Administrazio honetan, eta indarrean egonez gero, ez da beharrezkoa izango berriz ere aurkeztea, betiere dagokion prozedura amaitu zenetik 5 urte baino gehiago igaro ez badira. Kasu horretan, Administrazioak ofizios berretsiko ditu. Horretarako nahikoa izango da dokumentu horiek noiz eta zein Zuzendaritza edo Saitetan aurkeztu ziren adieraztea.

3.– Agindu honen 4.6 artikulua arabera, udalek bikoiztasunik ezari eta finantza-iraunkortasunari buruzko aldeko txostenak aurkeztu beharko dituzte, udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jardueren, zerbitzuen edo prestazioen egikaritzea arautzen duen ekainaren 25eko 93/2019 Dekretuak ezarritakoaren arabera.

4.– Halaber, proiektua hobeto baloratzeko entitate eskatzaileek egokitzen jotzen duten beste edozein dokumentu ere aurkeztu ahalko da.

5.– Espedientea osatzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak eskatu ahal izango dizkio Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak entitate eskatzaileari, eta entitateak aurkeztutako datuak egiaztatzeke behar diren frogak egin ahalko ditu.

Hamargarrena.– Erakunde eskatzailearen betebeharrak eta betekizunak egiaztatzea.

1.– Eskaera aurkezteak organo kudeatzaileari baimena ematea ekartzen du, eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituen automatikoki egiaztatzeke, eskatzaileak baimen hori emateari berariaz uko badio salbu. Kasu horretan, onuradunak Ogasun administrazio-erakundeek eta Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatuko da laguntza edo dirulaguntza emateko onarpen-proposamena eman aurretik, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 5.1 artikulua ezartzen duenaren arabera.

2.– Eskatzaileak baimena eman ahal izango du laguntzak kudeatzen dituen organoak gaineko datu edo dokumentuak eskuratu edo egiaztatu ditzan, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

3.– Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.5 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatu ordez, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo da:

- Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan onuradun izateko adierazitako debekuetako batean ere ez egotea.
- Ez duela administrazio- edo zigor-zehapenik, laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez duela dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistari Gabeko Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23.2 artikulua ezartzen duenaren arabera.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta deialdia ebazteko unean izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan sartuta ez egotea. Bestela, dagokion prozedura edo prozedurak adierazi beharko dira.

- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrean egunean egotea.
- Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu eta, hala badagokio, jaso direla adieraztea, edozein administratziotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.
- Sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen jarduerarik ez egitea, ez eta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penalik jaso ere, zehapenean ezarritako aldian.
- Berdintasun-plan bat indarrean izatea, nahitaez eduki behar badute.
- 50 langiletik gorako enpresen kasuan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri izana egiaztatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legerian ezarritako baldintzetan.
- Halaber, erakunde eskatzaileak adierazi beharko du egiazkoak direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak.

Erantzukizunpeko adierazpen bati eransten zaion datu, azalpen edo dokumenturen bat zuzena ez bada, edo faltsua bada, edo haietako bat falta bada, prozedura etengo da horren berri jakin bezain laster, gerta daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak aparte utzi gabe. Gainera, gorago azaldutakoa adierazteko ematen duen ebazpenean Administrazio Publikoak ezarri ahal izango du interesdunak dirulaguntza itzuli behar duela, bidezkoa izanez gero.

Hamaikagarrena. Eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, interesdunari modu telematikoa eskatuko zaio akats hori zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko hamar egun baliodunen epean. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez. Zuzenketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta»ren bidez egingo da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Eskabidea aurrez aurre eta paperean aurkeztu bada, interesdunari adieraziko zaio elektronikoki aurkeztu behar duela.

Hamabigarrena. Dirulaguntzak emateko eta kuantifikatzeko prozedura.

1.– Deialdi honi lehiaketa bidez emango zaio ebazpena. Dirulaguntzak emateko, ezarritako epearen barruan aurkeztu diren eskaera guztiak alderatu egingo dira eta lehentasun-hurrenkera baten arabera sailkatuko dira, hamalagarren oinarrian ezarritako hautaketa- eta balorazio-irizpideei jarraituz. Nolanahi ere, laguntza jasotzeko beharrezkoa izango da 40 puntutik gora jasotzea. Kasu bakoitzean eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, balorazio batzordeak eskatutako zenbatekoaren ehuneko jakin bat ematea proposatuko du; hain zuzen, ezarritako irizpideak aplikatu ostean lortzen diren puntuaren arabera izango da ehuneko hori. Ehunekoak lortzeko formula hau aplikatuko da:

$$100 \times (\text{puntu kopurua} - 40) / 20$$

Lortutako puntu-kopurua 60 edo gehiago denean, eskatutako zenbateko osoa ematea proposatuko da. Dena den, beti bete beharko da hamabosgarren oinarrian dirulaguntzen zenbatekoa eta mugei buruz ezarritakoa.

Lortutako emaitza zenbaki hamartarra bada, hurbilen duen zenbaki osoarekin biribilduko da.

2.– Oinarrian deialdiari esleitutako hornidura ekonomikoa ez bada nahikoa artikulu honen aurreko puntuan aurreikusitakoaren arabera hasieran kalkulaturako laguntzak osorik ordaintzeko, laguntza horiek murriztu egingo dira. Hala egiten bada, azkenean ezartzen diren zenbatekoek, aipatu hornidurarekin lotuta, bete egin beharko dute horiek aurrera eraman ahal izateko hasieran kalkulaturako zenbatekoan kopuru orokorrarekiko zuten proportzioa.

3.– Dirulaguntzak emateko egiten duen proposamenean, balorazio batzordeak laguntzeko jarduerak eta baztertzekoak aipatuko ditu banaturik. Eskabide berean izaera ezberdinetako jarduerak badaude eta denak laguntzen ez badira edo denak baztertzen ez badira, hots, balorazio batzordeak ebazpen-proposamenean zehaztu egingo du zein jarduerak jasoko duen laguntza eta zeinek ez.

Hamahirugarrena. Balorazio Batzordea.

1.– Aurkeztu diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da. Hauek izango dira kideak:

- Batzordeburua: Josu Gerediaga Egurrola, Gazteriako arduraduna.
- Bokala: M.^a Jesús Emazabel Lekuona, gazteriako teknikaria. Ordezkoa: Iker Garagarza Berger, gazteriako teknikaria.
- Bokala: Agurtzane Iriondo Goti, gazteriako teknikaria; idazkari ere jardungo du. Ordezkoa: Lourdes Ramirez de Ocáriz Sorolla, gazteriako teknikaria.

2.– Hamalagarren oinarrian ezarritako balorazio- eta esleipen-irizpideak kontuan hartuta, Balorazio Batzordeak ebaluazio-txosten bat aurkeztuko dio laguntzak kudeatzen dituen organoari, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzari.

Hamalagarrena. Balorazio-irizpideak.

Eskabideek lortzen duten puntuazioa, 12.1 oinarrian aipatua, jarraian adierazten diren irizpideak aplikatzearen ondorioz eskuratutakoa izango da:

1.– Entitate eskatzaileak jarduera horretarako dituen sarreren eta jarduerarako aurrekontu osoaren arteko proportzioa, eskatzailearen baliabideak portzentaje handiagoan baloratuko dira, ondorengo eran, gehienez ere 10 puntu:

- 1.1.– % 20etik % 40ra bitarteko autofinantzaketa, 0 puntu.
- 1.2.– % 40tik gorako eta % 60ra bitarteko autofinantzaketa, 5 puntu.
- 1.3.– % 60tik gorako autofinantzaketa, 10 puntu.

2.– Programa edo jardueraren egokitasuna. Programa edo jardueraren xedeak argi zehaztuta dauden eta gazte onuradunen beharren azterketan oinarrituta dauden hartuko da kontuan. Gehienez ere 5 puntu.

3.– Proiektuaren diseinuaren eta ezarpenaren kalitatea. Proposatzen den proiektuaren fase guztien (prestakuntzaren, jardueren eta ebaluazioaren) argitasuna, zehaztasuna eta kalitatea hartuko dira aintzat, bai eta nahi diren emaitzak lortzeko metodologia egokia erabil dadila ere, edota proiektuaren xedearen, proposatzen diren jardueren eta jarduerak egiteko aurrekontuaren artean koherentzia egotea ere. Era berean, gazte parte-hartzaileen babesa eta segurtasuna ziurtatuko dituzten neurri

zehatzak egotea ere kontuan hartuko da, eta proiektua bera zein proiektuaren emaitzak jasangarriagoak izatea ahalbidetuko duen azken ebaluazio-prozesua egotea. Gehienez ere 25 puntu.

4.– Euskararen erabilera programa edo jarduera garatzean, bai giza baliabideen alorrean bai baliabide materialen alorrean. Gehienez ere 12 puntu:

4.1.– Proiektuaren garapenean ez dago euskararen erabilera bermatuko duen berezko neurririk, 0 puntu.

4.2.– Euskararen presentzia ziurtatzen duten ekintzen kopurua proiektuan jasotako jarduera guztien % 50etik beherakoa izatea, gehienez ere 2 puntu.

4.3.– Euskararen presentzia ziurtatzen duten ekintzen kopurua proiektuan jasotako jarduera guztien % 50a izatea, gehienez ere 5 puntu.

4.4.– Euskararen presentzia ziurtatzen duten ekintzen kopurua proiektuan jasotako jarduera guztien % 50etik gora eta % 100etik behera izatea, gehienez ere 10 puntu.

4.5.– Proiektua bere osotasunean euskaraz garatzen da, gehienez ere 12 puntu.

5.– Generoaren ikuspegia, hots, proiektuaren garapenean sistematikoki aintzat hartzea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta beharizan ezberdinak, ezberdintasunak ezabatzea eta berdintasuna sustatzea zuzendutako helburu eta jarduketa zehatzak txertatuz. Gehienez ere 12 puntu.

6.– Jardueren parte-hartzaile eta onuradunen gutxi gorabeherako kopurua eta profila. Horretarako, jardueren parte-hartzaile eta onuradunen kopurua baloratuko da, bai eta aukera gutxien dituzten gazteek horietan parte hartzea ere; hau da, egoera sozial, ekonomiko, hezitzaile, kultural edo geografiko ahuleko gazteek, edo jarduerak egitea eragozten ez dien desgaitasunaren bat duten gazteek. Gehienez ere 15 puntu.

7.– Proiektuaren inpaktua eta hedapena. Proiektuak parte-hartzaileengan, erakundeetan eta garatuko den inguruan eduki dezakeen inpaktua baloratuko da, edota emaitzak hedatzeko nahiz ustiatzeko aurreikusten diren neurrien egokitasun eta kalitatean. Gehienez ere 6 puntu.

7.1.– Proiektuaren inpaktua eta emaitzak hedatzeko eta ustiatzeko neurriak ez dira garrantzen, 0 puntu.

7.2.– Proiektuaren inpaktua eta haren emaitzen hedapena eta ustiapena proiektuan jasotako jardueretan parte hartzen duten pertsonentzat baino ez dira, gehienez ere 2 puntu.

7.3.– Proiektuaren inpaktua eta haren emaitzen zabalkundea eta ustiapena parte-hartzaileen eremutik gorakoa da, eta oro har, gazteen kolektiboari edo gazteriaren eremuan jarduten duten beste erakunde batzuei eragiten die, gehienez ere 4 puntu.

7.4.– Proiektuaren inpaktua eta haren emaitzen hedapen eta ustiapena herritar guztien gana iristen da, gehienez ere 6 puntu.

8.– Proposamenaren irismena: baloratuko da jarduerak zenbateraino lagun dezakeen Europako kide izatearen sentimendua indartzen, bai eta gazteen ikaskuntza informala indartzen ere, jarduera-tipologiaren arabera:

8.1.– Gazteen mugikortasunerako edo trukerako jarduera, bidalketa eta harrera barne: 15 puntu.

8.2.– Gazteen mugikortasunerako edo trukerako soilik joaneko jarduera: 12 puntu.

8.3.– Harrerako gazteen mugikortasun edo trukerako jarduera: 8 puntu.

8.4.– Gazteen mugikortasunarekin edo trukearekin lotutako hedapen- edo prestakuntza-jarduerak: 3 puntu.

Hamabosgarrena. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak.

1.– Onartutako aurrekontuan diruz lagun daitekeen gastuaren % 80ra artekoak izan ahalko dira deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak, baina inola ere ezingo dute ehuneko hori gainditu.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, deialdi honen babesean entitate eskatzaile bakoitzari emandako dirulaguntzen guztizkoa ezingo da izan 50.000 eurotik gorakoa.

Hamaseigarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako beste laguntza edo diru-sarrerekin, betiere 6.m) oinarrian aurreikusitako autofinantzaketa-muga errespetatuta eta, betiere, gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako dirulaguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

Hamazazpigarrena. Dirulaguntzak kudeatzea.

Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzari dagokio Agindu honen bidez araututako dirulaguntzak kudeatzea.

Aurkeztutako espedienteak eta Balorazio Batzordeak egindako txostena aztertu ondoren, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta.

Behin-behineko ebazpen-proposamena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta»ren bidez jakinaraziko zaie erakunde interesdunei, eta, hala badagokio, 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Epe hori igaro eta aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzako titularrak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta erakunde interesdunei jakinaraziko die, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire Karpeta»ren bidez, 5 egun balioduneko epean onarpena jakinaraz dezaten.

Epe horretan ezer jakinarazi ez bada, dirulaguntza onartu dela ulertuko da.

Hemezortzigarrena. Ebazpena.

1.–Aurkeztutako eskabideak prozedura bakar batean izapidetuko dira. Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordea izango da dirulaguntzak emateko ebazpena emango duen organoa.

Ebazpen hori sei hilabeteko epean jakinaraziko zaie erakunde interesdun guztiei, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Jakinarazpenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta»ren bidez egingo dira.

Halaber, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira erakunde onuradunen zerrenda eta emandako laguntza, denek jakin dezaten.

2.– Ebazpenean zehaztuko da eskatutako dirulaguntzak eman diren edo, hala badagokio, ukatu diren. Lehenengo kasuan, honako hauek adieraziko dira: erakunde onuradunen identitatea eta bakoitzari esleitutako dirulaguntza osoaren zenbatekoa. Ukatutako kasuan, ukatzeko arrazoiak jasoko dira.

3.– Sei hilabeteko epea amaituta, erakunde interesdunak ez badu jakinarazpenik jasotzen, bere uzia administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertu ahal izango du, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

4.– Emakidaren ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio-bideari. Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hemeretzigarrena. Dirulaguntza jasotzen duten entitateen betebeharrak.

1.– Agindu honen xede diren dirulaguntzen erakunde onuradunek Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak bete beharko dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunek berriaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

b) Dirulaguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kargura jasotako laguntza eta dirulaguntzei dagokienez, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak egingo dituen egiaztapen-jarduerei eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkion kontrol-jarduerei men egingo zaio, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi espezifikoak aurreikusten dituen ere.

d) Agindu honetako dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsonak edo entitateak behartuta dira Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzaren babesa berriaz eta argi aipatzeko, diruz lagundutako jardueraren dela-eta dirulaguntza jaso dutela jakinarazten dien ebazpena jasotzen dutenetik aurrera egiten dituzten programa, iragarki-kartel, argazki eta argitaratzen dituzten gainerako material grafiko zein soinudunetan, zeintzuk Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan editatuak izan beharko baitute. Gainera, diruz lagundutako jardueraren ondorioz sortzen diren liburu, liburuxka edo kartelen ale bat aurkeztu behar dute beren kontura edo, bestela, horien kopia euskarri fisiko edo magnetikoan, materialaren izaera edo euskarriaren egokitasunaren arabera. Betebeharrak honetatik salbuetsita egongo dira behin jardueraren bukatuta eskabidea aurkeztu eta dirulaguntza jasotzen duten erakundeak, baita dirulaguntza eman zaiela jakinarazten dien komunikazioa behin jardueraren bukatuta jasotzen duten erakundeak ere.

e) Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatutako eta, hala badagokio, haietatik jasotako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea organo kudeatzaileari.

